


Euskal AEko industri jarduera % 6,2 hazi zen 2005eko ekainean

2005eko lehenengo sei hilabeteetan izandako bilakaerak % 2,2ko hazkundera izan zuen, aurreko urteko aldi berdinarekin alderatuta

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko ekainean, lan egutegiko termino homogeneotan % 6,2 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2004ko hil beraren aldean. Urtearen lehenengo sei hilabeteetan industri jarduera % 2,2 hazi zen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2005eko ekainean % 1,2 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

**Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileko
hazkunde zuzendua**



Iturria: Eustat

Sektore-bilakaera

Sektoreka, industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2005eko ekaineko indizearen bilakaerak 2004ko ekainarekin alderatuta aldakuntza positiboak izan zituen kasu guztietan. *Energiak* % 10,9ko urte arteko hazkundera izan zuen; *ekipo-ondasunek* eta *bitarteko ondasunek* % 9,7 eta % 4,9koak, hurrenez hurren; eta *kontsumo-ondasunak* % 0,7 hazi ziren, *kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 1,0 eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 0,5 hazi zirelako.

2005eko lehenengo sei hilabeteetan, *ekipo-ondasunak* % 5,7 hazi ziren, *bitarteko ondasunak* % 1,3 eta *energia* % 0,5. *Kontsumo-ondasunak*, aldiz, % 0,4 murriztu ziren, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* (% -0,7) izandako jaitsierak eraginda, *kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 0,1 gehitu baitziren; horiek guztiak 2004ko lehenengo sei hilabeteekin alderatuta.

2005eko ekaineko hil arteko aldakuntza positiboa izan zen industri sektore handi (ISH) guztietan, 2005eko maiatzaren aldean. *Energiak* % 4,7ko hil arteko hazkundera izan

zuen, *bitarteko ondasunek* % 1,4koa, *ekipo-ondasunek* % 0,3koa eta *kontsumo-ondasunek* % 0,7koa, *kontsumo-ondasun iraunkorren* % 0,4ko eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 0,8ko hazkundeen eraginez.

Bilakaera lurralde historikoka

Ekaineko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak antzekoak izan ziren lurralde guztietan: % 7,2 hazi zen Gipuzkoan, % 6,0 Araban eta % 5,6 Bizkaian. Urteko lehenengo sei hilekoaren metatua % 3,4 hazi zen Gipuzkoan, % 1,8 Bizkaian eta % 0,9 Araban.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasen (2005eko ekaina, urte bereko maiatzaren aldean) bilakaerak positiboak izan ziren bi lurraldetan: % 3,0 hazi zen Bizkaian eta % 0,1 Gipuzkoan, baina % -0,4ko aldakuntza izan zen Araban.

Taula: 2005eko EKAINA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	eka05/eka04	At/At-1 (1)	eka05/mai05	mai05/api05
Indize orokorra: Euskal AE	6,2	2,2	1,2	-0,1
Araba	6,0	0,9	-0,4	1,8
Bizkaia	5,6	1,8	3,0	-1,7
Gipuzkoa	7,2	3,4	0,1	0,5
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	0,7	-0,4	0,7	-3,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	1,0	0,1	0,4	-3,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,5	-0,7	0,8	-3,4
Ekipo-ondasunak	9,7	5,7	0,3	2,3
Bitarteko ondasunak	4,9	1,3	1,4	-0,1
Energia	10,9	0,5	4,7	0,3

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi berdinararen aldean

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 e-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp